

TOCA IGUALDAD

Indarkeria matxistei HEZKIDETZAREN bitartez
aurrea hartzeko proposamen bat



Egileak: Clara Urbano Molina y María Monjas Carro

Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak: Leticia Navarro Navarro (Kena Prints)

Irudiak: <https://unsplash.com> (Maragaux Bellot, Annie Sprat, Christina Wocintechcha, Dominic Chung, Peter Sjo, Giacomo Ferroni) Siri-husvedt_litteraturexchange-2019_DSC00115_2.jpg-

Argitalpenaren koordinazioa: Clara Urbano Molina

Edizioa: InteRed

Itzulpena: Bakun <http://www.bakun.eus/es/>

Lege-gordailua: M-7944-2020

ISBN: 978-84-121198-2-4

Madriilen (Espainia), 2019ko azaroa


Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) batera finantzaturako proiektu baten parte da, AECID 18-CO1-1217, AECID 18-CO1-1218 eta AECID 18-CO1-924 hitzarmenetako EPDren esku-hartzearen esparruan. Argitalpen horren edukia InteSarek bakarrik du bere gain, eta ez du nahitaez AECIDen iritzia islatzen..

Babesleak:



AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA: Indarkeria matxistak, mundu-mailako arazo historiko bat	11
• Bide itxaropentsu bat	12
• Emakumeen eskubideak Nazioarteko Agendan	18
• Testuinguru globala: haserretzen gaituzten eta martxan jartzen gaituzten datuak	22
3. Indarkeria matxistarik gabeko herritartasun global batera iristeko HEZKIDETZA-PROPOSAMEN bat	27
4. Hezkidetza Herritartasun Globala eraikitzeko baliabide eta berdintasun errealdaren aldeko konpromisoaren zutabe	30
• Gure hezkidetza-jardunbideentzako bide-orria	37
• 1 PAUSOA: Indarkeria matxistak eta halakoen kausa estrukturalak	38
IDENTIFIKATZEA	
• 2 PAUSOA: Botere-diskurtso hegemonikoak DESMUNTATZEA	46
• 3 PAUSOA: PORTAERA indibidualetatik portaera kolektiboetara pasatzea: berdintasunaren alde, denok Herritartasun Global baterantz	50
• Gazteak, aldaketa sozialaren protagonista	54
• ORAIN, BERDINTASUNA! Goazen aurrera elkarrekin, indarkeria matxistarik gabeko mundu bat lortu arte!	58
5. BIBLIOGRAFIA	61



SARRERA

Albistegietan maiz entzuten da gizonezko batek bikotekide ohia edo emakumezko ezezagun bat hil duela, neska bat taldean bortxatu dutela, lan-munduan gizon eta emakumeen artean sekulako soldata-arrakala dagoela, eta hori gutxi balitz, eta sarri-sarritan ikusten edo entzuten dugu politikari edo pertsona ospetsuren bat komentario misogino onartezinak egiten. Neurri txikiagoan, baina bestelako berriak ere iristen zaizkigu noizbehinka: ehunka nesken mutilazio genitala, ezin konta ahala neraberen haurdunaldiak, mundu osoan esklabo bihurtzen dituzten hainbat eta hainbat emakume eta neska.

Urtero, 66.000 emakume hiltzen dituzte munduan. Latinoamerikan, adibidez, 12 emakume hiltzen dituzte egunero, eta arrazoia berbera izaten da beti: emakume izate hutsa¹. Munduaren beste aldean, baina errealitate global beraren barruan betiere, Europar Batasuneko hamar emakumetik batek 15 urtez geroztik ziberjazarpena sufritu izana aitortu du, tartean nahi ez zituzten mezu elektroniko edo SMSak jaso izana, eduki sexual esplizitu eta iraingarriak zituztenak, edota sare sozialetan eraso iraingarriak pairatu izana². Espainian, berriz, 17 autonomia-erkidegoetatik 9tan bakarrik daude sexu-indarkeriaren biktimenezko arreta-zentro espezializatuak. Eskubide ekonomiko eta sozialei eta lan-eskubideei dagokienez ere, egunero konturatzen gara emakumeek nekez egin diezaieketela aurre bai indarkeriari eta bai prekarietateari: munduko pertsonapobreen %70 emakumeak dira. Gizon eta emakumeen arteko osina are sakonagoa da, eta bidegabeagoa ere bai, kontuan hartzen badugu munduan egiten den lanaren % 66 emakumezkoek egiten dutela Nazio Batuen arabera, eta elikagaien erdiak ere haiek produzitzen dituztela; aldiz, ordain-sariaz ari bagara, diruaren % 10 baino ez dute jasotzen, eta jabetzaren % 1 bakarrik dago haien esku⁴.

Horiek horrela, errealitateak berak behartzen gaitu zerbait egitera. Eta, horretarako, InteRed osatzen dugun gizon-emakumeok uste dugu ezinbestekoa dela, herritar gisara eta hedabideetako eta sare sozialetako titularrak bazterrean utzirik, **indarkeria eta desberdintasun horien jatorri eta kausa estrukturalak zein diren ondo ulertzea**, halakoen kontrako borrokan nork zer egin dezakeen identifikatzeko. Are funtsezkotzat dugu mundu osoko herritarrok, kontzientziaz horren bitartez, **geure gizarteetan beharrezkoak diren aldaketak egiteko beharra sentitzen haste**, indarkeria matxistarik gabeko mundu bat lortu nahi hori etengabe bazkatuz, guztion giza eskubideak errespetatu daitezkeen eta gure egunerokoan den-denok bizitza zaindu eta justizia errespetatu dezagun.

Horretarako, **gure eguneroko bizitzan indarkeriak duen presentzia itzelaz jabetzea da lehen pausoa, hura desnaturalizatzen ikastea eta hartaz hitz egitea**. Izan ere, natural-natural ikusten dugu indarkeriak gure harreman guztiak zeharkatzea, eta hori dela eta, ezinbesteko irizten diogu atzera ere geure gorputzak sentsibilizatu eta geure begiradak hezteari. Lehen pauso hori ematea ez da erraza

¹Koordinakundea, Munduko emakumeak greban [online], 2018ko martxoaren 2a. Hemen eskuragarri: <https://coordinadoraongd.org/2018/03/mujeres-del-mundo-huelga/>

²Oinarritzko Eskubideen Europar Batasuneko Agentzia (2014), Violence against women: an EU-wide survey, 104. or.

IDENTIFIKATZEA



DESMUNTATZEA



PORTAERA



izango, zeren eta gure gizarteetan tabua baita esparru pribatu zein publikoan indarkeria non eta nola gertatzen den seinalatzea, askotan erosoagoa delako pentsatzea indarkeria besteei gertatzen zaien zer baitela. Baina, hain zuzen ere, gure arteko harremanetan indarkeriak duen presentziaz hitz egitea zaila bada, hori horrela da hitz egite horrek ernamun eraldatzaile aparta dakarrelako barruan. **Ezinbestekoa da isiltasuna urratzea, indarkeria halako konplizitateei esker erreproduzitzen baita beti.**

Bai bertan eta bai kanpoan, nonahi dira bidegabeak gizon eta emakumeen arteko desberdintasun itzel horiek, pertsonen beren eskubideez gozatzea ukatzen baitzaie haien bidez. Baina zein dira desberdintasunon kausak? Ekonomikoak, sozialak nahiz politikoak izan, kausa horiek estu lotuta daude **gure bizimodua gobernatzen**

duen garapen-ereduarekin; eta garapen-eredu horren muin eta bihotzean, **etengabe produzitzearen, metatzearen eta kontsumitzearen aldeko lasterketa indibidualista dago.** Horren ondorioz, gizarteak zatitu egiten da, baliabideak eta aberastasunak modu bidegabean banatzen dira, eta horrek erabakimena ukatzen die pertsonen, oinazeak eragiten ditu, pobrezia sortzen du, jendea hil egiten da... Eta, esan beharrik ere ez dago, emakumezko heldu, nerabe eta umeak dira bazterketa- eta indarkeria-egoera anker hori gogorren sufritzen dutenak.

Hain zuzen ere, InteRed osatzen dugun guztiok egin nahi diogu aurre egoera lazgarri horri, eta horretarako aurkeztu **dugu ORAIN, BERDINTASUNA! kanpaina hau: indarkeria matxistei aurrea hartzeko zer egin denon artean pentsatzeko,** eta horrekin lotuta proposamen espezifiko

³Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko konbentzioa Espainian aplikatu den moduari buruzko txostena (2015-2018), 2019ko maiatza. Hemen eskuragarri: <https://cedawsombraesp.files.wordpress.com/2019/05/190513-informe-cedaw-sombra.pdf>

⁴Koordinakundea (2018).

bat egiteko ere bai, **gure hezkuntza-komunitateetan hezkidetza-praktikak nola errotu aztertze**ko, hezkuntza-komunitateak zentzurik zabalenean ulertuz betiere (hezkuntza formala eta ez-formala, familiak, hezitzaileak, gazteak, ikasleak, erakundeetako langileak...). Hori guztia egiteko, dei egiten dizuegu hezkuntzaren espiritu eraldatzaile eta gidari hori indartzen lagundu diezaguzuen, gizaki izatea bera krisi betean dagoen garaiotan. Zehatzago esateko, gazteen potentzial eraldatzailea nolabait piztea da kanpaina honen bitartez lortu nahi duguna, gazteei beren bizitzen protagonista bihurtzen laguntzea, errealitatea aldatzen has daitezen.


Hezkidetza proposamen pedagogiko bat da, eraldaketa sozial eta globala bultzatzen duena, eta halaxe ulertzen dugu InteRed osatzen dugunok ere. Eta feminismoak ere, korrante pedagogiko eta mugimendu politiko diren aldetik, iparrorratz eta erreferentzia-sistematizat hartu beharko genituzke eraldaketa sozialaren bide horretan, hezkuntza-sistema humanista eta kritiko bat lortu eta pertsonen zaintza eta naturaren babesa erdigunean jarriko baditugu.


Dokumentu hau ORAIN, BERDINTASUNA! kanpainaren aurkezpen-gutuna da, eta gogoetarako eta prestakuntzarako akuilu bai, baina indarkeria matxistarik

gabeko mundu libre baten aldeko borrokaren parte izan gaitezen lortzea du helburu nagusia. Testu honen orrialdeen joanean, gure munduan nagusi diren erlazio kapitalistak eta kolonialistak aztertuko ditugu, **zenbait pertsonaren pribilegioen jatorria beste pertsona batzuk zapaltzearen eta eskubideak ukatzearen ondorio direla defendatuko dugu**, eta natura inolako ardurarik gabe ustiatzeak berez mugatuak diren baliabideak agortzea dakarrela esplikatu. Halaber, genero-desberdintasunak eta indarkeria matxista estrukturalak direla (hau da, gure gizarteetan funtzio jakin bat betetzen dutela) salatzen eta bisibilizatzen ere ahaleginduko gara, leku eta sasoi askotako emakumeekin bat eginik. Gure ustez, izan ere, gaur egun, proposamen kolektiboak egiteko eta elkarrekin komunikatzeko aukera ematen duten teknologia berriak nonahi dauden mundu global honetan, funts-funtsezkoa da bilatzen dugun informazioa zorrotza izatea **eta emakumezkoen mugimenduak eta/edo mugimendu feministak indartzen jarraitzea** denetariko alor eta ezagutza-esparrutan, herritarrak informatuz eta sentibilizatuz, eta gobernuak mobilizazio sozialaren eta ekintza politikoaren bidez presionatuz.

Gure GGKEak genero-hezkuntzaren eta -berdintasunaren alde egin nahi du apustu, eta hori dela eta, uste dugu **ezin dugula bazter batea utzi indarkeria matxisten arazoa**, mundu osoan ehunka mila emakumeri eragiten baitie, eta pertsona guztien giza eskubideak urratzen baititu; gainera, gure borrokan aurrera egitea galarazten digu. Horregatik, indarkeria-mota hori zer kausa estrukturalak eragiten duten ondo gogoan harturik, soluzioaren parte izan nahi dugu, eta horretan modu aktiboan lan egin, eta indarkeria matxistei aurrea hartzeko moduko baliabide bat proposatu, hezkuntza-modu eraldatzaile, humanista eta kritiko bat lortzeko; zehatzago esateko, **hezkidetza-praktika jakin bat proposatu nahi dugu: lehenik, indarkeriak identifikatzeko; bigarrenik, indarkeria horiek desmuntatzeko; eta, hirugarrenik, indarkeria horiei aurre egiteko.**

Bide horretan, gogoratu beharra dago ekintza eraldatzaile orok maila pertsonalean hasi behar duela nahitaez, baina kolektibitate batean ondo erroturik betiere, eta hortik abiatuta, **Herritartasun Global bat eraiki behar dugula, indarkeria matxistarik gabeko mundu libre bat lortzeko**, gizon-emakume guztiek bete-bete bizitzeko duten eskubidea gauzatuz eta errespetatuz.





JUSTIFIKAZIOA

Indarkeria matxistak, mundu-mailako arazo historiko bat.

BIDE ITXAROPENTSU BAT

Aspaldi zaharretik egon dira emakumeak bizi zituzten desabantailez jabetuta zeudenak, sufritzen zituzten bazterketez eta jazarpenez kontzientziatuta zeudenak. Marjinetan idatzita utzitako haien gogoetak iritsi dira guganaino, guztiz nagusitu den diskurtso androzentrikoa auzitan jartzen dituzten teoriak eta proposamenak, errealitatea interpretatzeko eta aldatzeko bideak erakusten dizkigutenak.

Beste emakume askok elkarrekin antolatzeke egindako ahalegina ere gogoan ederki iltzaturik dugu, haien adore politikoa, emakumeen eskubide zibil, politiko eta sozialak lortzearen askatasuna eta bizitza bera ere arriskuan jartzerainokoa. Eta testuinguru kolonialetan, gerra- eta pobrezia-egoera ankerrenetan, beren gorputz eta bizitzak lagunen eta seme-alaben alde emandako beste hainbat emakumeren berri ere badugu, haiei buruz inork idatzi ez duen arren, eta ahoz aho esandakoek ere haien biografiak ezkutatu eta, zenbaitetan, urratu dituztela ondo badakigu ere.


Erakunde Teresiarrek sustatzen duen GGKEa den aldetik, InteRed-ek bere egiten du emakumeen eskubideen alde irmoki borrokatu den genealogia luze hori, hezkuntza jasotzearen eta eskubide sozial eta zibilak lortzearen aldeko emakumeen borroka luze hori. Ehun urte baino gehiago dira Erakunde Teresiarra eta hura osatu duten kide guztiak modu adierazgarrian lanean ari direla emakumeei oinarritzko eta goi-mailako hezkuntza jasotzeko duten eskubidea berma dakien; horren adibide da 1914an, Madrilen, emakumeentzat Espainian egon zen aurreneko unibertsitate-egoitza ireki izana. Erakundeko kide izan ziren, beste askoren artean, María Echarri eta Carmen Cuesta diputatuak, emakumezko langileen aldeko lege-proposamen ugari

eraman zituztenak Parlamentura (InteRed, 2014).

Eta ezin ahaztu eta aipatu gabe utzi geure bizitzetan hain garrantzitsuak izan diren gure ama, ahizpa eta lankide guztiak, bai eta gu geu ere, mundu parekideago eta bidezkoago baten alde aspaldi abiatu zen bide luze bezain malkartsu horretan pausoak ematen jarraitzen baitugu gaur egun ere, bizitza erdigunera eramanez.

Historia luze horretan gizonezkoak ere egon dira, generoaren mugak gainditu beharraz jabetuta eta beren pribilegioak berrikustearen alde zeudenak, eta hain zuzen horregatik modu koherentean jokatu dutenak, beren jokatzeko moduarekin sistemapatriarkalabetikotzen eta bazkatzen duten gizonen portaera zalantzan jarriz eta, horrekin batera, giza eskubideak den-denei, gizon zein emakumeei, bermatzearen aldeko borroketan modu aktiboetan parte hartuz.

Gure arbasoek emakumeen kontrako indarkeria bisibilizatu eta haren kausa estrukturalak eztabaida politiko eta sozialaren erdigunera eramateko urraturiko bide luze horren




“Afari guztiak daude prest,
eta plater eta kikara guztiak,
garbi; haur guztiak daude
eskolan, eta denek dute
bizimodua ateratzeko aukera.
Eta, hala ere, horretaz guztiaz
ezer ere ez da gelditzen. Dena
desegin da. Ez biografiek eta
ez historia-liburuek ez dute
hori guztia aipatu ere egiten.
Eta eleberrietan, nahigabe
bada ere, gezurra da nagusi”.

**Virginia Wolf, idazle
britainiarra, 1882-1941**

ondorioz, aurrerapen eta aldaketa positibo batzuk nola loratu diren ere ikusi dugu oraindik orain eta han-hemenka, bai kulturaren alorrean, imajinarioak, ohiturak eta portaerak gutxi-asko aldatu direnik ez baitago ukatzerik, eta bai ekonomiaren eta politikaren alorrean ere, emakumeen eskubideen alde lege dezente onartu baitira azken urteetan.

Hona hemen lorpen horietako batzuk, aintzat hartzeko modukoak denak:



Aurrerakada nabarmena, genero-berdintasunari dagokionez, mundu osoko lehen eta bigarren mailako hezkuntza-matrikulazioetan⁵.




Gorakada ikaragarria mundu osoan argitaratzen diren testu eta proposamen pedagogiko feministen kopuruan, bai esparru akademikoan, bai hezkuntzarenean eta bai literaturarenean.



Zaintzak babesteko eta erantzukizunak parekidetasunez banatzeko araugintza-proposamenak nabarmen ugaltu, ekonomia feminista kapitala-bizitza gatazkari aurre egiteko proposamen gisara sendotu izanaren ondorioz⁶.



Migrazioari buruzko nazioarteko azterketetan generoa kategoria gisara aintzat hartzen eta emakumezkoei protagonismoa ematen hasi⁷.



Sexu-indarkeria, bikote barruko kontu pribatua balitz bezala ez, baizik eta emakumeen mendekotasunari eusteko elementu giltzarri gisara interpretatzen hasi⁸.




Mugimendu feministak eta, oro har, emakumezkoek mundu osoan izan duten gorakada mailakatu horretan, hona zenbait mugarri:

⁵Unesco (2016), Mundu-mailako hezkuntzaren egoerari buruzko jarraipen-txostena. Hemen eskuragarri: <https://gem-report-2016.unesco.org/es/chapter/la-paridad-de-genero/>

⁶Entrepueblos (2017), Economía Feminista. Desafíos, propuestas, alianzas.

⁷Gregorio Gil, C. (2003), Revisiones feministas en el análisis de las migraciones, Genero Ikasketen Iberoamerikako Kongresua, Saltako Unibertsitate Nazionala, Argentina, 2003ko uztaila. Hemen eskuragarri: https://www.ugr.es/~pfisiem/html/ponencias/REVISIONES_FEMINISTAS_EN_AN_LISIS_MIGRACIONES_GREGORIO_SALTA_ARGENTINA_doc

⁸Gai horri buruz, ikusi Susan Brownmiller ikertzailearen lanak, hala nola Contra nuestra voluntad, 1975ekoa.



SUFRAGISTAK

XIX. mendearen lehen erdian, Erresuma Batuan, emakumeen sufragioaren aldeko borroka hasi zen, familia barruko sexu-indarkeria eta tratu txarrak salatzeko kanpaineekin batera.

BELTZEZKO EMAKUMEAK

Emakume bakezaleen nazioarteko mugimendua, Palestinar Lurraldeen okupazioari, Golkoko gerrari eta Balkanetakoari aurre egin ziena, eta agintarien ankerkeriak salatuz, gatazka armatu guztietan genero-indarkeria nagusi izaten dela agerian ipini zuena.

UDABERRI ARABiarREKO

Iraultzetan hainbeste emakumek parte hartu izanak harri eta zur utzi zituen bai diktadoreaketa bai inteligentzia-zerbitzuak, argi eta garbi erakutsiz herritarrek ez dituztela batere gogoko era horretako erakundeak, eta horrek zenbait erregimen zapaltzaile garaitzen lagundu zuen⁹.

MUG

GERRIKO BERDEA MUGIMENDUA

Wangari Maathai ekintzaileak sortua 1977an, gaur egun 4.000 taldek baino gehiagok osaturiko sare bat da, Afrikako emakumeak eta ingurumena babestea helburu duena⁹.



**Wangari Maathai, Kenyako politikari
eta ekologista, 2004ko Bakearen
Nobel Sariaw**

⁹Gómez Wagner, C. (2015), ¿Qué es el movimiento cinturón verde? [online], 2015eko urriaren 14a. Hemen eskuragarri: https://www.bioguia.com/entretenimiento/que-es-el-movimiento-cinturon-verde_29277170.html

¹⁰NBE (2017), Las mujeres y la primavera árabe [online], 2017ko ekaina. Hemen eskuragarri: <https://unchronicle.un.org/es/article/las-mujeres-y-la-primavera-rabe>

ARRRI

#Me Too

Mugimendu hori 2017an sortu zen, sare sozialetan, emakumeen kontrako indarkeria-eta gehiegikeria-egoerak salatzeko traol-hitz edo hashtag modura. Gerora, hainbat hizkuntzatan erreplikatu zen, eta bazter ugaritara iritsi, auzia kulturala ez baizik eta guztiz unibertsala dela argi erakutsiz.

GIZA KATEA

2019ko urtarrilean, Indiako 3,5 milioi emakumek 620 kilometroko giza kate bat osatu zuten, tenplu hindu batean otoitz egiteko eta, oro har, berdintasunerako zuten eskubidea aldarrikatzeko¹².

BAKAR BAT GUTXIAGO ERE EZ!

2015ean sortu zen, Argentinan, ehunka emakume kalera irten zirenean estatuari feminizidioei aurre egiteko moduko politikak eta aurrekontuak onartu eta matxismoaren ondorio lazgarriei buruzko eztabaida publiko bat antola zezan eskatzera. Pixkanaka-pixkanaka, mugimendua munduko hamaika bazterretara iritsi zen, hango eta hemengo estatuei indarkeria matxistei aurre egiteko eskatuz¹¹.

M8a – Emakumeen Nazioarteko Eguna

Emakumeen kontrako indarkeria sozial, juridiko, politiko eta moralari aurre egin nahirik Polonian hasi eta mundu osora zabaldutako mugimendu itzela 2016an sendotu zen, nabarmen, eta harrezkero, urtero-urtero, martxoaren 8an, mundu osoko emakumeak kalera irteten dira.

¹¹Infocielo, Cómo y por qué comenzó el Ni Una Menos: el movimiento que visibilizó la lucha de las mujeres, [online], 2018ko ekainaren 3a. Hemen eskuragarri: https://infocielo.com/nota/92198/como_y_por_que_comenzo_el_ni_una_menos_el_movimiento_que_visibilizo_la_lucha_de_las_mujeres/

¹²AsiaNews.it, En Kerala, cadena humana de 3 millones y medio de mujeres, para rezar en el templo hindú, [online], 2019ko urtarrilaren 2a. Hemen eskuragarri: <http://www.asianews.it/noticias-es/En-Kerala-cadena-humana-de-3-millones-y-medio-de-mujeres-para-rezar-en-un-templo-hind%C3%BA-45860.html>

Emakumeek historiaren joanean aurrera emandako pauso horien erakusgarritzat har daitezke indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeek duten eskubidearen alde egindako **lege-aldaketa** guztiak. Beraz, oinarri-oinarrizkoa da onartzea emakumeen indarkeriari aurre egitearen arrazoi nagusia **Giza Eskubideen babes ezinbestekoa** dela: emakumeek indarkeriarik Gabe bizitzeko eskubide urraezina dute.

Horiek horrela, gaur egun, Nazioarteko Agendan, hainbat mekanismo eta baliabide txertatzen ari gara, mundu osoko emakume eta neskek sufritzen dituzten bazterketa- eta indarkeria-egoerei aurre egiteko beharrezkoak denak. Hona hemen horietako batzuk:

AGENDAN:

Emakumearen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (**CEDAW**), 1979koa, eta haren garapen fakultatiboa, 2000koa.

Emakumeei buruzko NBEn nazioarteko konferentziak: Mexiko-1975, Kopenhage-1980, Nairobi- 1985, **Pekin-1995**, garrantzi handiko beste batzuk, hala nola **1993an Vienan** egindakoa, eta populazioari eta garapenari buruz 1994an Kairon egindakoa, sexu- eta ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak babestu beharreko giza eskubidetzat hartu zituena lehen aldiz.

Vienan 1993an antolatu zen Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentzian, emakumeen kontrako indarkeriak giza eskubideak urratzen zituela aitortze aldera, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko Nazio Batuen Deklarazioa onartu zen. 1. artikuluan, honela definitzen zen emakumeen kontrako indarkeria: **“emakumeei, emakume izate hutsagatik, sufriarazten zaien ezein eraso joko da haien kontrako indarkeriatzat, bai eta haien kontrako mehatxuak eta haien askatasunaren kontrako erasoak ere, bai publikoak eta bai pribatuak, baldin eta horrek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edota psikologikoa eragiten badie”**.



Pekineko Ekintza Plataforman, 1995ean, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeari sekulako garrantzia eman zitzaion, eta hori gutxi ez, eta orduantxe hasi ziren emakumeez pluralean hitz egiten, hau da, haien egoera aztertzean era askotako alderdiak aintzat hartzen (klasea, etnia, adina, etab.), emakumeak zaugarri zerk bihurtzen dituen hobeto jakiteko aukera emango zigulakoan horrek.

Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurrea Hartzeko, Zigortzeko eta Ezabatzeko Konbentzio Interamerikarra (Belém do Pará-ko Konbentzioa), 1994an Brasilen jakitera emana.

Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna, 1986koa, eta Afrikako Emakumeen Eskubideei buruzko Protokoloa (**Maputoko Protokoloa**), 2005ekoa, CEDAW eta Pekineko Ekintza Plataforma aplikatzera behartzen duena.

2002an, Europako Kontseiluak emakumeen kontrako indarkeriaren definizio esplizitua onartu zuen, eta horren ondorioz, Emakumeen Kontrako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeari eta Haren Aurka Borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena edo **Istanbuleko Hitzarmena onartu zuen 2011n.**

LEGEAK:

GUATEMALA

Feminizidioari eta emakumeen kontrako bestelako indarkeriei buruzko Legea (2008).

DOMINIKAR ERREPUBLIKA

Familia barruko indarkeriari eta genero- eta sexu-indarkeriari buruzko 24-97 Legea.

BOLIVIA

Emakumeei indarkeriarik gabe bizi direla bermatzearen aldeko 348 Legea, 2013ko martxoaren 9koa.

ESPAINIA

Genero-indarkeriaren kontrako babes-neurri integralari buruzko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa.

Genero-indarkeriaren kontrako estatu-ituna, 2017koa. Bertan aipatzen diren neurrien artean, lehentasun erabatekoa aitortu zitzaion hezkuntza-ziklo guztietan hezkidetza-sistema bat ezartzeari.

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda

guztiz garrantzitsua dela uste dugu¹³, gaur egun oinarritzko erreferentzia bihurtu baita garapen globalaz dihardutenen artean. Hori dela eta, gaur egun ate-joka dugun erronka nagusia horixe da, hain zuzen: aldi berean giza eskubideak, Lur planetan eta natura-baliabideak babesten dituen gizarte bat eraikitzea.

2030 Agendari dagokionez, gure kanpainak puntu hauek hartzen ditu aintzat:

4.GIH:

Guztiontzako **kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa** bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

4.7.

«Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen iraunkorra sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen iraunkorrerako eta bizi-estilo iraunkorretarako, **giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen iraunkorrari laguntzeko, hezkuntzaren bidez**».

5.GHI:

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.

Horrekin lotuta, mundu guztiak emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzea, genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztien ahalduntzea sustatzeas.

¹³Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda 2015ean sinatu zuten Nazio Batuen Erakundea osatzen duten herrialdeetako estatu-eta gobernu-buruek. Globalizazioak ekarritako arazo sozial, ekonomiko eta ekologikoei aurre egite aldera nazioarteko komunitateak bere gain hartu nahi izan dituen konpromisoak biltzen dira bertan, eta pertsonak, planeta, oparotasuna eta bakea erdigunean jarri nahirik. Horretarako, garapenerako 17 helburu (OHI) aurkezten dira, iraunkortasunarekin lotuta tokian-tokian eta nazioartean zer-nolako politikak implementatu beharko liratekeen azalduz.

Testuinguru globala: haserretzen gaituzten eta martxan jartzen gaituzten datuak.

Lorpen horiek guztiek, guk nahi genukeen mundu parekide horren eraikuntzan emakumeei eskubideak eskuratzeko aukera eman diete lorpen horiek guztiek, eta horrek gure lanari zentzua eta guri itxaropena emateko balio beharko luke, bidean aurrera egiten jarraitzeko, eta konturatzeko eraldaketa sozialaren historia alde dugula eta alde ditugula legeak ere, gure ekintzak babesten, sustatzen eta justifikatzen dituztenez gero.

Baina, hala eta guztiz ere, gureak mundu bidegabe eta berdintasunik gabea izaten jarraitzen du, eta horixe adierazten digute bai pertzepzio partikularrek eta baita datu eta zenbaki objektiboek ere: desberdintasunak nonahi, diskriminazioa han-hemenka, emakumeen kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa munduko bazter guztietan. Horrexegatik aipatu nahi ditugu jarraian zenbait datu: emakumeen kontrako indarkeria arazo global bat dela erakusteko. Izan ere, horixe da gure lanaren muina: datu garbi-garbiak ematea.

¹⁴Osasunaren Mundu Erakundea, Ugalketa Osasun eta Ikerketa Saila, Londresko Higiene eta Medikuntza Tropikalari buruzko Eskola, Ikerketarako Hegoafrikako Kontseilua (2013).

¹⁵Unicef (2016), Female Genital Mutilation/Cutting: A global concern, UNICEF, New York.

¹⁶Unicef (2017), State of the World's Children.

¹⁷UNFPA (2017), Mundos aparte. La salud y los derechos reproductivos en tiempos de desigualdad. Hemen jaso: Entreculturas (2108), Niñas libres de violencia, Educación como garantía de igualdad.

¹⁸Tribuna feminista (2017), ONU Mujeres pide que se reconozca el trabajo no remunerado de mujeres al cargo de cuidados y tareas, [online], 2017ko otsailaren 20a. Hemen eskuragarri: <https://tribunafeminista.elplural.com/2017/02/onu-mujeres-pide-que-se-reconozca-el-trabajo-no-remunerado-de-mujeres-al-cargo-de-cuidados-y-tareas/>

¹⁹López Salorio (2018). Hemen eskuragarri: <http://www.fairwear.org/vaw-prevention/>

²⁰Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014), Violence against women: an EU-wide survey, 3. eranskina, 184.-188. or.

²¹Koordinakundea (2018).

DATU

OMEren arabera, **mundu osoko emakumeen % 35ek jasan du indarkeria fisiko** eta/edo sexuala bikotekidea ez beste pertsonaren baten eskutik. Beste ikerketan batzuen arabera, bikotekideak berak eraso dien emakumeak askoz gehiago izan dira: % 70¹⁴.

UNICEFen kalkuluen arabera, **200 milioi emakume eta neskatori mutilatu dizkiete genitalak**¹⁵ eta, mundu-mailan, 20 urtetik 24 urtera bitarteko 600 milioi emakume behartu dituzte neskatoak zirela ezkontzera: munduko emakumeen % 21¹⁶.

Populazio Gaietako Nazio Batuen Funtsaren arabera, urtean **7,3 milioi erditze izaten dira 18 urtetik beherako nerabeen artean; horietatik**, 1,1 milioi neskatok 15 urte baino gutxiago dituzte¹⁷.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonaren bat zaintzen dutenen % 83 emakumeak dira. Emakume batek etxetik kanpora lan egiten duen ordu bakoitzeko, gizon batek 5 minutu eskas gehiago egiten du lan etxean. Europan, familien % 3tan bakarrik banatzen dira ardurak eta lanak. Espainian, zaintzak tarteko enplegua uzten duen gizon bakoitzeko, 27 emakumek uzten dute lana¹⁸.

55 milioi emakume inguruk kondizio negargarrietan egiten dute lan ehungintzako ezin konta ahala fabriketan, Asiaren hego-ekialdean batez ere, baina baita beste leku batzuetan ere, hala nola Erdialdeko Amerikan.¹⁹

NBEren arabera, 2014an, Europar Batasunean elkarriketatutako emakume ez-heterosexualen % 23k aitortu zuten **indarkeria fisiko eta/edo sexuala sufritu zutela beren bikote-harremanetik kanpora;** emakume heterosexualen artean, erasoak jasan izana aitortu zuten emakumeak % 5 izan ziren²⁰.

Pertsona-trafikoaren biktimen % 71 emakume eta neskatoak dira, Drogen eta Delituen kontrako NBEren bulegoaren arabera ²¹.

InteRed presente dagoen herrialdeetako batzuetako errealitatea gertuagotik aztertuz gero, berriz, hona hemen behaketaren emaitzak:

GUATEMALA:

Giza Eskubideen Prokuradoretzaren arabera, 2017an 813 emakume hil ziren modu biolentoan; Ministerio Publikoaren arabera, heriotzen %35 izan ziren.

Urte horretan bertan, Zientzia Forentseen Institutu Nazionalak **sexu-indarkeriaren** 5.948 biktimaren berri eman zuen: biktimen % 36,3 nerabeak izan ziren, eta % 90, berriz, **emakumeak**.

Osasun Ministerioaren arabera, 2016an 10 urtetik 19 urtera bitarteko 74.041 neska erditu ziren; alegia, Guatemalan, **bost nerabetik bat ama da**, eta urte-tarte horretako gutxienez 5 neskato geratzen dira haurdun egunero.

DOMINIKAR ERREPUBLIKA:

Demografiari eta Osasunari buruzko Inkesten arabera (ENDESA), urtero **200 feminizidio izaten dira**.

Populazio Gaietarako Nazio Batuen Funtsaren arabera, **emakume dominikarren % 35ek sufritu zuten genero-indarkeria 2016an**; horietatik, 15-49 adin-tarteko emakumeen % 25,6k eta % 10k indarkeria fisikoa eta indarkeria sexuala jasan zuten hurrenez hurren, eta % 60,5ek, bikotekidearen kontrola.

Nazio Batuen Garapen Programaren arabera (NBGP), **jaiotzen diren haurren % 22ren ama 15-19 adin-tarteko neskatoak dira** – 1.000 nerabe 90 haurdunaldi daude.

22. Zientzia Forentseen Institutu Nazionala

23. Fiturria: feminicidio.net

24. Díaz-Aguado Jalón, María José (2014), La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza.

BOLIVIA:

Bolivian EINEk 2016an egindako emakumeen kontrako indarkeriaren prebalentziari eta ezaugarriei buruzko inkestan, 7.271 familiari galdetu, eta emaitzak hauek izan ziren:

15 urtetik gorako **emakumeen % 74,7k sufritu zuten genero-indarkeria** beren bikote-harremanean, eta % 44,4k, azken 12 hilabeteans.

15 urtetik gorako **emakumeen % 64,7k sufritu zuten genero-indarkeria** eskolan: % 62,1ek, indarkeria psikologikoa; % 28,4k, indarkeria fisikoa, eta % 12,2k, indarkeria sexuala.

15 urtetik gorako **emakumezko langileen % 61ek sufritu zueten genero-indarkeria** lantokietan: % 13k, indarkeria fisikoa, eta % 10ek, indarkeria sexuala.

ESPAINIA:

2018an, **97 feminizidio** izan ziren Espainian.²³

GeneroIndarkeriarenaurkakoGobernuaren Ordezkaritzak egindako ikerketa-lan baten arabera, **neska gazteen % 67k aitortu izan dute teknologia berriekin lotutako inguruetan, noiz edo noiz, genero-indarkeria sufritu izan dutela.**²⁴

Espainiako Amnesty International erakundearen arabera, 2018ko urtarritetik ekainera bitartean, **801 bortxaketa salatu ziren** (eguneko 4 baino gehiago).

2017an EINEk eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioak jakinarazitako zenbait daturen arabera, **emakumeen % 84k eskatzen dute eszedentzia seme-alabak zaintzeko; aldiz, eszedentzia eskatzen duten gizonak % 16 bakarrik dira.** Hala ere, aitatasun- eta amatasun-bajen kopurua paretsu samarra da.

INDARKERIA

matxistarik gabeko herritartasun global batera iristeko HEZKIDETZA-PROPOSAMEN bat.

Genero-berdintasuna lortzeko dihardugu lanean, eta gogor jardun ere, InteRed osatzen dugun kideok; horixe izan da gure konpromiso irmoa hasiera-hasieratik, eta gaur egun ere horixe da garena mamitzen duen elementu nagusia, gure eguneroko praktikaren muina. Genero-ikuspegia oinarri-oinarrizkotzat dugu kalitatezko hezkuntza eraldatzailea lortzeko bidean, horrek ekarriko baitu, gure ustez, **mundu-mailan herritar konprometituak egotea, justiziaren, eraldaketa sozialaren eta pertsona guztien eskubideen alde borrokatuko direnak.**

Hortxe sortzen da, hain zuzen, hezkidetzari buruzko gure interesa, pedagogia kritikoko korronteez utzitako ondarean eta alor horretan egindako lanen esperientzian; hori dela eta, honako korronte hauek aipatu nahiko genituzke: Hezkuntza Humanista, Herri Hezkuntza eta Hezkuntza Inklusiboa, eta, batez ere eta nagusiki, Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (EpDCG).

Diogun horren adibide dira gure ibilbidearen hasieratik antolatu ditugun kanpaina guzti-guztiak: Emakume bat heztea herri bat heztea da [Educar una mujer es educar a un pueblo] (2004), Garapenerako berdintasuna: emakume batek aurrera egiten badu, munduak ere bai [Igualdad para el desarrollo: si la mujer avanza el mundo también] (2006), Batuz heztea: aldaketarako formula [Educar sumando, la fórmula del cambio] (2009), Mugitu berdintasunaren alde. Justizia da kontua [Muévete por la Igualdad. Es de justicia] (2009), Zaintzak helburu, errealtatea aldatzeko [Actúa con cuidados. Transforma la realidad] (2012, eta kanpainaren bigarren fasea: Zaintzen iraultza [La revolución de los cuidados] (2016).


Indarkeriaren prebentzioari behar bezala heltzeko alor eta esku-hartze estrategia ugari aintzartu behar badira ere, InterRed osatzen dugun kideoi funtsezkoa iruditzen zaigu, eta horri ematen diogu lehentasuna, **emakumeen kontrako indarkeriak geure**

bizitzetan zer-nolako papera duen aztertzen eta auzitan jartzen duen hezkuntza-mota bat lantzea, batetik, eta indarkeria-mota hori erreproduzitzen duen gure garapen-ereduaren azpian zer-nolako arrazoi estrukturalak dauden aztertzea, bestetik. Indarkeria matxistak gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak bazkatzen ditu, bai eta genero-izaera ez duten beste zapalketa-mota batzuk ere, hala nola arrazakeria eta homofobia. Desberdintasun eta zapalketa horiek daude, hain zuzen, gure garapen-ereduaren altzoan, eta gauza jakina da eredu horrek ez duela bizitza hartzen gure gizartearen muin eta mamitzat, baizik eta merkatua eta eredu horren beraren interesak. Horrek, bistan denez, sekulako sufrikarioak eragiten dizkie gure mundu honetako pertsona gehientsuenei.

Horiek horrela, bada, **InterRed-en genero-politikaren printzipioetako bat hezkidetzak sustatzea da**, hezkidetzak formal, ez-formal eta informal baten alde lan egitea, gizon eta emakumeen arteko errespetua, lankidetzak eta solidaritatea abiapuntu eta ardaztat harturik, horrek aukera eman diezagun pertsonak, sexuen arabera hierarkien arabera ez, baizik eta balio-, portaera-, arau- eta espektatiba-sistema konplexu baten arabera hezteko, hau da, neska-mutilak beren arteko desberdintasun indibidualak eta ezaugarri pertsonalak aintzart harturik hezteko (Interred, 2014).

*Hezte aske izateko prestatzea da,
mutil eta neska bakoitza den horixe
izateko prestatzea: mutil eta neska
bakoitza “errealitatera esnaraztea,
baina errealitateak norberaren
izatea, norbera berez den hori, ito,
estutu edota azpian hartu gabe”.*

**María Zambrano, pentsalari,
filosofo eta saiogile espainiarra
(1904-1991).**



Horregatik, hezkuntzaren alorrean gabiltzanok indarkeriari aurrea hartuko badiogu, ezinbesteko irizten diogu jardunbide bikoitz bat martxan jartzeari: gure pentsatzeko, egiteko eta sentitzeko moduen bidez betikotzen ditugun **imajinario-, sinbolo- eta arau-sistema sozialak desmuntatzea, batetik, eta eraldatzea, bestetik**. Izan ere, gure ustez, horrek pertsona guztiei aukera eman diezaieke sexuaren arabera bereizi gabe garatzeko, genero-hierarkiak eta -rol bidegabeak bazterturik, eta hala, azkenean ere, harreman horizontalez eta errespetuzko harremanez gozatzeko.

HEZKIDETZA HERRITARTASUN GLOBALA ERAIKITZEKO BALIABIDE ETA BERDINTASUN ERREALAREN ALDEKO KONPROMISOAREN ZUTABE


Gaurko munduan, badirudi hezkuntza-sistemak lanerako baino ez dituela prestatzen gure neska-mutilak, horixe dela etorkizunerako ematen dien giltza bakarra. Guretzat, ordea, hezkuntzak gizartearen barruan beti izan duen paper humanista, eraldatzaile eta etiko hori berreskuratu beharko luke, eta zehatzago esateko, pertsonak etorkizunerako prestatu bai, bina bizitzarako eta herritar kritiko eta arduratsuak izateko ere hezi beharko lituzke luze gabe eta denon artean eraiki beharko genukeen hezkuntza-sistema horrek.

Prozesu horretan, beharrezkoa izango da denon artean zer gizadi-eredu eraiki nahi dugun ondo definitzea, eta, horretarako, gure justizia- eta berdintasun-irizpideekin bat datozen koherenteak ere integratu beharko ditugu, bake-kultura batean oinarriturik.

Horretarakoxe jarri nahi dugu martxan ORAIN, BERDINTASUNA! kanpaina, orain arte hezkuntzaz aurkeztu ditugun ikuskeretan oinarriturik (2019): sinetsita gaudelako hezkidetza genero-berdintasuna lortzeko baliabide ezin aproposagoa dela eta gure ikaskuntzen eta ekintzen kriseilu izan daitekeela. Gure hezkidetza-praktikek aukera emango digute harreman onak sustatzeko, indarkeria matxistei aurrea hartzeko, eta eguneroko bizitzan eta hezkuntza-etapa guztietan berdintasuna errotzeko, curriculum-edukiak eta esku-hartze metodologia pertsonen garapen sozio-emozionalera egokituz. Eta horretan, oinarri pedagogiko eta politiko gisara, feminismoak dira eraldaketa sozial horren erreferentzia ezinbestekoak dira feminismoak.

Horretan sakondu nahirik, hona hemen gure eguneroko hezkidetza-praktiken oinarri diren lau ardatz nagusiak:

ARDATZA





PERTSONEN ETA PLANETAREN ZAINZA ERDIGUNEAN JARTZEA

Pertsonen interdependentzia eta ekodependentzia aitortzen duten ikaskuntzak prestatu eta bultzatu behar dira, merkatuen zentralitatea alde batera utzirik, eta bizitzaren eta denon ongizatearen jasangarritasunari eman behar zaio garrantzia, etorkizuneko bizimoduak imajinatzeko orduan.



IDENTITATE- ANIZTASUNAREN ABERASTASUNA AINTZAT HARTZEA ETA OSPATZEA

Aniztasuna, aldaketa-iturri den aldetik, balio positibotzat hartu behar da, eta alde horretatik, heteropatriarkatuak inposatutako identitate hegemonikoak (sexuagatikoak, jatorriagatikoak, klaseagatikoak, adinagatikoak, sexu-orientazioagatikoak, aniztasun funtzionalagatikoak...) auzitan jarri behar dira, pertsona guztien berdintasuna eta eskubideak bermatuko baditugu.



KALITATEZKO HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUAL BAT SUSTATZEA, ELKARRENGANAKO ERRESPETUAN OINARRITUTAKOA

Uste dugu emozioak, afektuak eta sexualitatea oinarri-oinarrizkoak direla pertsonen garapen-prozesuan. Hori dela eta, afektuen eta sexualitatearen eremuan ere erantzukidetasuna bultzatu eta hezkuntza afektibo-sexual egoki bat, gure haur eta gazteek hedabide, sare sozial eta pornografiaren bidez jasotzen dutenaz bestelakoa, eskaintzearen garrantzia nabarmendu nahi dugu.



INDARKERIA MATXISTEN PREBENTZIOA

Aurreko ardatzekin estu-estu loturik, uste dugu indarkeria matxistei aurrea hartzea ezinbestekoa dela Hezkidetzaren ikuspegian, eta indarkeriarekin ez dagoela tolerante izaterik. Beraz, matxismoari eta emakumeen kontrako indarkeria-mota orori zilegitasun guztia kendu behar zaie, eta portaera-eredu eta gatazkak konpontzeko bide gisara orain arte aitortu izan zaion balioa gaitzetsi. Halakoen aurka, gizon eta emakumeen arteko harremanak onak eta berdintasunean oinarrituak izatea bultzatu behar da.

*“Sentimenduak apaingarri
ezinbestekoak balira bezala
babestu izan dira, denbora-pasa
dibertigarri bat besterik ez balira
bezala, pentsamenduak
mendean hartuko zituelako
itxaropenez, gizonek ere
emakumeok mendean hartu
behar gintuztela espero
izan duten bezalaxe”.*

**Audre Lorde, Ahizpa
arrotza, 1984 (idazle
afroamerikarra, feminista,
eta eskubide zibil
eta sexualen aldeko
ekintzailea).**



Hortaz, **pertsona kritiko, konprometitu eta aktiboak heztearekin dago lotuta Hezkidetzaren aldeko gure apustua**, eta horretanzergati eta zertarakoa ere argi dago: **indarkeria matxistarik gabeko gizarteak eraikitzea da gure helburua**. Horretarako, baina, pertsonengan zer-nolako gaitasunak piztu behar diren hausnartu beharra dago, eta gure praktikak horretan oinarritu. Honatx gaitasun horiek²⁵:

Garapen-eredua zalantzan jartzea, patriarkatua, kapitalismoa, kolonialismoa eta, oro har, **denetariko mendekotasun-sistemen artean zer-nolako loturak dauden aztertuz eta azalduz**, eta sistema horiek guztiek emakumeen aurkako indarkeria eta ezin konta ahala diskriminazio-egoera nola eragiten dituzten erakutsiz. Gero, hortik abiatuta, ikuspuntu globalago batetik ere aztertu beharra dago zer genero-desberdintasunen ondorioz gertatzen diren emakumeen kontrako indarkeriazko egoerak, bai harreman pertsonalen esparruan eta bai harreman sozialenean.

Ikuspegi intersektionalak aplikatzea, emakumek gogoz eta gorputzez (klase sozialagatik, adinagatik, jatorri etnikoagatik,

erlijioagatik, sexu-orientazioagatik, aniztasun funtzionalagatik, migratzaile-izaeragatik...) nola zapaltzen dituzten identifikatu eta izendatzeko, **eta ulertzea faktore horiek guztiek emakumeek sufritzen dituzten indarkeria-egoerak baldintzatzen eta sendotzen dituztela**, gure ikasleak gai izan daitezen mundua kontzientzia kritikoaz aztertzeko.

Pentsamendu binario edo dikotomikoari aurre egitea, natura-kultura, publikoa-pribatua, produktiboa-erreproduktiboa, arrazoimena-sentimena, gizona-emakumea eta halako kontzeptu-pareak auzitan jarritz, **horrek bestelako bizimoduak eraikitzeko aukera eman diezagun eta pertsona eta/edo gizarte-talde bakoitza aintzat hartuz eta ikuspegi dikotomiko** eta sinplifikatzaile guztietatik harago joanez.

Egunerokotasuna politizatzea, **eraldaketa sozialari norberaren bizipenetatik abiatuta bakarrik ekin dakiokela** aintzat hartuta; alegia, bizitza pertsonala dela eremu eta estrategia politikoaren funts eta oinarria. Horregatik, gure potentzialtasun eta gaitasunez jabetu behar dugu, gizabanako modura ahaldundu eta gure erabakimena sendotzeko.

²⁵Hemen aipatzen diren ideietako asko txosten honetan oinarritzen dira: Mujeres en Zona de Conflicto, 2017, COEDUCACION global para el desarrollo: mejorando el impacto de los planes de igualdad y de convivencia desde un enfoque de género y emancipador.


Pauso bat aurrera ematea ikuskera indibidualetatik ikuskera kolektiboetara, horrek eraldaketa sozialaren alde modu aktiboan parte hartzen lagundu diezagun (zabal ditzagun leihoak, komunitate osoa kabitutadin eskolan!). Ikuskera kolektiboen eta komunitatearen aldeko apustu hori ezinbestekoa da, gure ustez, **benetako demokrazia parte-hartzaile bat eraikiko badugu.**

Modu kritiko, sortzaile, aprobetxagarri, konprometitu eta proaktiboan lantzea ezagutza, eta aldi berean, gizartea eraldatzeko alternatibak imajinatzeko, asmatzeko eta sortzeko gaitasun eta trebetasunak eskuratzea. **Norberarenak diren estrategia eta baliabide parte-hartzaileak sortzea eta partekatzea, gure mobilizazio eta intzidentzia politikoa are handiagoak izateko,** eta errealitatea eraldatu eta bizi garen munduan nagusi diren erlazio kapitalista, kolonial eta patriarkalek dakartzaten desberdintasunak ezabatzea, emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea defendatuz.



Gure hezkidetza- jardunbi- deentzako bide-orria

Gure hezkidetza-jardunbideen oinarriak aurkeztu ondoren, jarraian bide-orri bat aurkeztuko dugu, indarkeria matxistarik gabeko mundu parekideago bat erakitzearen alde konprometituta dagoen Herritartasun Global horretara iritsi bitarterainoko bidea nola urratu aldez edo moldez azaldu nahirik.



1 PAUSOA



Indarkeria matxistak eta halakoen kausa estrukturalak IDENTIFIKATZEA.

Lehenik eta behin, inguruan zer indarkeria-mota ditugun identifikatu beharra dago, eta horren ondoren, **indarkeria matxista zer den ulertu**: emakumeek, emakume izate hutsagatik, jasaten eta sufritzen duten eraso oro, alegia.

Indarkeria identifikatzen ikastea ez da batere erraza, halakoak ez ikustera ohituta baikaude. Are gehiago: **indarkeriak gure egunerokoa erabat blaitzen baldin badu, hori horrela da indarkeriara ohitu garelako, guztiz normalizatu dugulako**. Horregatik, ezer baino lehen, hezkidetzaranzko gure bide-orri horretan lehenengo pausoa indarkeria

zer den identifikatzen jakitea eta desnormalizatzea da: indarkeriaz harritzen ikastea. Gure begiratzeko modu, harreman-eredu eta gorputzak hezi behar ditugu, eta indarkeriari aurre egin, eta horrek denbora eta esfortzu dezente eskatzen du, eta baliabide asko behar dira, gainera.

Gure egunerokoan indarkeria desikasi behar horretan, **genero-indarkeriari dagokionez batez ere, gu geu matxistak izateak nabarmen zailtzen du kontua, eta bizi garen lekuetan desberdintasunak hain nagusi eta gailen izateak ere bai**, nabarmena baita gizon eta emakumeen artean desparekotasun itzelak dauela, hau da, gizonak emakumeen sufrimendu eta prekarietatearen lepotik lortu dituztela beren pribilegioak. Izan ere, errealitate horren barruan bihurtu da normal genero-indarkeria, eta horregatik ez gaitu ez harritzen eta ez kezkatzen gizonak emakumeei erasotzeak: eguneroko kontua delako, espero izatekoa eta batere harrigarria gertatzen ez zaiguna.

Bestalde, indarkeria-kasuetan esku hartzen dugunerako garrantzi handikoa da halakoak zein fenomeno konplexuak diren ondo jakitea. Izan ere, **indarkeriak gure harreman guztiak zeharkatzen ditu, gure pribilegioak, gure afektuak, gure gorputzak, gure identitateak, norbanako eta kolektibo modura subjektiboki nahiz objektiboki bizitzan aurrera egiteko**

erabili ohi dugun guzti-guztia. Erlazio horiexek sendotzen dute indarkeria, hain zuzen ere; eta horrexegatik gertatzen zaigu hain zaila halako indarkeria-egoerei igartzea, berdin dio nondik begiratzen diegun, erasotzailearen ikuspuntutik zein biktimarenetik.

Gaur gaurkoz **tabu bat da gure harreman eta inguruetan indarkeriaz hitz egitea, eta zenbait arrazoi tarteko, baita indarkeriarekin erlazionatzeko dugun moduaz hitz egitea ere**. Beraz, at-joka duguna lan-eskerga ikaragarria da: indarkeriari aurrea hartzea eta bestelako mundu bat eraikitzea, alegia. Horretarako, **indarkeriak mutu gauzkan isiltasuna hautsi behar dugu**, eta gure egunerokoan hura nola bizi dugun esateari beldurra galdu.

Bigarrenik, sustraietara joan beharra daukagu, genero-desberdintasunak nola sortzen eta nola erreproduzitzen diren ikasi edo, bestela esanda, **genero-desberdintasunen eta indarkeria matxisten kausak zein diren identifikatu**. Gainera, indarkeria-egoera orokorrak identifikatzetik indarkeria-egoera matxista konketuagoak identifikatzera igarotzeak berak ere seinalatzen digu bidea: gizon eta emakumeen arteko arrakala historikoak esplikatzen du indarkeria-mota matxista

horren zergatia, bai eta arrakala horrek bestelako zapalketa-egoera askorekin duen lotura estua ere, hala nola arrazakeriarekin edota azken bolada honetan hain normala bilakatu den prekarietatearekin duena.

Esan liteke, bada, indarkeria-egoera matxisten kausak gure sistema patriarkal honen baitan daudela, eta sistema hori gizon eta emakumeen arteko harreman desparekoen multzoak eta maskulinitzat eta femeninitzat jotzen dugunak osatua da, eta hori beste mendekotasun-sistema batzuekin batera erreproduzitzen da: kapitalismoarekin



(kapitala metatzean ardaztua) eta kolonialismoarekin (nazio gailen batek arrotzak zaizkion lurraldeak azpian hartuz). Horregatik esan dugu **indarkeria matxisten kausak estrukturalak direla, gure gizarteak egituratzen dituzten sistemen funtzionatzeko moduarekin eta gure pentsaera, sentiera eta egikerekin zerikusia dutelako.**



Eta nola funtzionatzen du, ba, gure garapen-eredu patriarkal, kapitalista eta kolonialista honek, eta nola errerproduzitzen ditu mundu zabaleko bazter guzti-guztietan gailen diren desberdintasunak? Bada, hori guztia estu lotuta dago gure eguneroko praktikekin. Are gehiago, gure gaur egungo garapen-ereduaren sostengu nagusia gure eguneroko praktikak, sentierak eta pentsaerak dira, desberdintasuna eta indarkeria matxisten erabilera babesten eta are defendatzen dituzten balio eta ideologietan oinarrituak den-denak. Praktika, uste eta sinesmen horiek guztiek gure mundu-ikuskerara eta geure burua eta besteak ulertzeko moduak eratzen dituzte,

eta gure arteko harremanak eta batzuen eta besteen arteko desberdintasunak ere bai. Eta elkar ulertzeko, egiteko eta izateko modu horiek bazkatzen dituzte, hain zuzen, desberdinak garela sinetsarazten diguten imajinario eta sinbolo sozial horiek, horren ondorioz sentitzen dugu gure arteko aldeek gure arteko desberdintasunak justifikatzen dituztela, aniztasun erreala gutxietsiz, gure arteko alde horiek uniforme bihurtu nahi baina ezinik, horrek adierazten baitu benetan nor eta zer garen. Beraz, gure pentsatzeko, sentitzeko eta egiteko moduek eragiten eta erreproduzitzen dituzte, egunero-egunero, gure arteko desberdintasunak. Eta desberdintasun horiek gabe, indarkeria ez litzateke posible izango, ezta indarkeria matxista ere. **Horregatik, denok berdina izango bagara, baina gure ezaugarri den aniztasuna aintzat hartuz betiere, norberak, den-denok, gizabanako modura aldatu behar dugu, eta hori gure egunerokoan egin beharra dago, gainera.**

INDARKERIA MATXISTAREN ARRAZOIAK



Botere hegemonikoaren diskurtsoak



Uste, sinesmen, ekintza, imaginario eta balio horiek forma ematen diete botere-diskurtso hegemonikoei; halakoen artean, **generoagatiko sozializazio bereizgarria da nagusi, bi identitate hegemoniko bereiz, bata bestearen aurkako eta baztertzaile eratzen dituen: identitate maskulinoa bata, identitate femeninoa bestea.** Sozializazio bereizgarri horrek, diferentziak errespetatu ez, baizik eta desberdintasunak sortzen eta emakumeak gizonen mende jartzen ditu, eta horixe da, hain zuzen ere, patriarkatuaren muin eta mamia.


Bi identitate bereiz eta hierarkizatu horien eraikuntza, haien inguruan eratutako balioena eta mitoena bezala, genero-desberdintasunen oinarri nagusia da, eta baita emakumeen kontrako indarkeriarena ere, horrek bihurtzen baititu normal eta arrunt gure pentsaerak eta egikerak.

Botere-diskurtso horien naturalizazioa (maskulinitate hegemonikoa, maitasun-eredu patriarkala, bortxaketaren kultura, pornografia sexu onaren eregu gisara, generoagatiko sozializazio bereizgarria, etab.) era askotara berrelikatzen da, eta zapalketa-, diskriminazio- eta indarkeria-egoera asko sortzen ditu emakume eta neskatoen artean. Gainera, emakume eta neskatoek berez jasaten dituzten zapalketa-egoera horiek are handiagoak ere izan daitezke, bizitzako beste esparru batzuetan

desabantailaren bat baldin badute: klasea, etnia, adina, sexu-orientazioa, aniztasun funtzionala, erlijioa, kultura, etorkina izatea... Izan ere, une eta gizarte jakin batean nagusi eta hegemoniko den identitatetik zenbat eta urrunago egon, emakumeak orduan eta zaurgarriagoak.



KAUSAK



Gure egoeran, posizioan eta kondizioan, emakume indigenak garen aldetik, garbi ikusten dugu gure garapen-ereduak huts egiten duela. Horren ispilu dira estatuek noizbehinka jakitera ematen dituzten estatistikak, eta datu horiek ez die, gero, inolako lotsarik ematen, jakin arren egoera laugarri horiek gure izateetan arrakalak eragiten dituztela eta emakume indigenon desira amatatzen dutela” “Ordena patriarkal, kolonial eta kapitalista ezegonkortzen baldin badugu, gure izatea indarrez azpiratzen dituzten mekanismoak ere ezegonkortuko ditugu aldi berean, eta horrek harrotu eta sendotu egiten gaitu emakume indigenok, eta baita gaixotasun sistemiko handi honen biktimak diren guztiak ere”.

Aura Lolita Chávez Ixcaquic (hezitzaile k'iche' maia, eta giza eskubideen eta emakumeen aldeko ekintzailea).



2 PAUSOA

Botere-diskurtso hegemonikoak DESMUNTATZEA.



Botere-diskurtso patriarkalek eraikitzen dute maskulinitateaz eta feminitateaz dugun irudia eraikitzen dute, eta irudi hori hegemoniko bihurtze da. Horregatik uste dugu prozesu hori arreta handiz berrikusi beharrekoa dela. Izan ere, kultur eraikuntza horiek ito egiten gaituzte, ez baitigute uzten gure identitatea eta gure arteko harremanak gure kasa, askatasunean eta berdintasunean oinarrituta, eraikitzen eta haietaz gozatzen, nahiz eta, berez eta definizioz, izaeraz desberdin izateak egiten gaituen gizaki, eta horregatik da lazarria norberaren izaera propio hori auzitan jartzea.

Neska-mutilei oso-oso ume direla hasten zaie transmititzen nolako gorputza izan behar duten, eder izatea zer den eta zer ez, gizon eta emakumeek nolakoak izan eta nola jokatu behar duten, zer sentitu eta zer desiratu behar duten, nor-nola maitatu eta nolako

harremanak izan behar dituzten, gatazkak nola konpondu eta are indarkeriarekin zer-nolako loturak izan behar dituzten... Marrazki bizidunak, filmak, bideo-jokoak, abestiak, bideo-klipak, iragarkiak, sare sozialak, baina baita familia barruan sozializatzeko modua, Eliza, lagunartea, eskola, ikasmaterial eta testu-liburuak, hitz egiten dugun hizkuntza eta besteekin komunikatzeko modua: horien guztien bitartez, besteak beste, **parte txar samarreko mezuak transmititzen dira, diferentziak ukatzen eta femeninoak direlakoan mespretxatzen diren balioak ezkututzen dituztenak, batetik, eta estereotipo patriarkalak eta lehiakortasun gaizto samarra erreproduzitzen dituztenak, bestetik, ondasun material zein gorputz eta desiren kontsumoa gailenduz eta desberdintasunak, indarkeria eta oinazea betikotuz oroz gain.**

Hezkuntza-gune formal eta ez-formaletan eraikitzen dira, hain zuzen ere, feminitatearen eta maskulinitatearen identitate horiek, eta baita inolako etiketarik gabe zer diren eta zer izan nahi duten definituz doazen identitate askeak ere. Horregatik, **hauxe da haur eta gazteei maskulinitatea eta feminitatea zer diren berrazterrazteko eta bi identitate-eredu horien artean zer-nolako erlazioak josi berriz definitzeko garaia**, hala ikuspuntu humanista batetik

pertsona aske eta kontzienteak hezteko, giza eskubideekin konprometitu daudenak eta beren buruaren eta gizartearen ardura dutenak.

Azaltzen ari garen proposamena dela tarteko, beraz, badakigu **zein inportantea den hezkidetzari ikasleen jatorri sozio-kulturala aintzat hartuz heltzea**, zaintzak, aniztasuna, sexualitatea eta antzeko beste gai batzuk estu-estu lotuta baitaude berez mugagarriak diren tradizio eta arau partikularrekin. Betiere giza eskubideak iparrorraztat hartuta, beren identitatea eraikitzen eta harreman afektibo-sexualak ezagutzen hasi berriak dauden neska-mutilek baldintza modura sentitzen dituzten alderdiak bistatik ez galtzen ahaleginduko gara, **gure proposamena pentsamendu kritikoa eta autonomia sortzeko esparru gisa erabili eta, hala, beren bizitzetan nora jo erabakitzeko ahala izan dezaten.**

Garrantzi handikoa da neska-mutilen jatorrizko kultuetan, testuinguru sozio-kultural bakoitzean, emakumezkoen bizitzari, sexualitateari eta gorputzari buruz zer irudi duten identifikatzea, bata bestetik oso diferenteak izan arren, denak ere sistema patriarkalean baitaude oinarrituta, eta funtsean, emakumeak den-denetan baitira menpeko.

BOTERE-DISKURTSOAK DESMUNTATZEN



Maskulinitatearen eraikuntza alderdi hauetan oinarritzen da:

Feminitatearen uko, gaitzespen eta mespretxua.

Emozioen errepresioa eta zaintzen ikaskuntzarik eza.

Behartutako heterosexualitatea.

Desira sexual maskulinoa pornografiaren bidez hezte, kontuan hartuta horrek sexu-indarkeria normalizatzen duela.

Indarkeriaren eta inposaketaren legitimazioa, gizonezkoen pribilegioei eta estatusari eusteko estrategia gisa.

radizionalki femeninoak izan diren” balioen ikuspegi positiboa lortzen laguntzea (elkarrizketa, samurtasuna, enpatia, zainketak, etab.), haurren eta gazteen enpatia-gaitasuna sustatuz, besteen zaintza balio positibotzat har dezaten.

InteRedek hezkuntzaz duen ikuskerari jarraituz, uste dugu “hezkidetza **aniztasunaren eta identitate askotarikoen aberastasunean oinarritzen dela**, eta balio positibotzat hartu behar dela, eta ez arazotzat, eta, beraz, maskulinitate eta feminitatea hegemonikoak heteropatriarkatuak inposatutako zerbait dela ulertu beharra azpimarratzen dugu” (InteRed, 2019:22).

Maskulinitateak indarkeriarekin duen lotura hautsi behar da:

- Ikastetxean emozioak eta zaintzak lehenetsi.
- Gizonezkoak, bortxatzaile potentzialak izateari utzi, zaintzaile potentzialak izan daitezkeela irakatsi.
- Gizonezko zaintzaileak erreferentetzat hartu.

Tratu txarrak, ustez txikiak izanagatik, txartzat hartzea beti, eta hezkuntza-zentroetan **INOLAKO TOLERANTZIARIK EZ IZATEA indarkeriaren aurrean**: indarkeria-egoerekiko isiltasun konplizeak guztiz eta erabat baztertea.

Sexu-orientazio eta -identitate ugari eta askotarikoak daudela aintzat hartu eta normalizatzea, denek izan dezaten beren egunerokoan beren afektuen berri emateko aukera, oinarrian gizaki guztiok antzekoak garela azpimarratuz. Homosexualitatea aparteko zerbait balitz bezala ez aipatzea, baizik eta sexu-aukeren artean beste bat dela azaltzea.

Emakumeei **besteentzako izaki direla** sinetsarazi zaie.

Maitasun-eredu erromantikoa gailendu da, gizon eta emakumeen artean menpekotasunezko harremanak bultzatzen dituen eta bikote barruan genero-indarkeria eragiten duena.

Edertasunaren mitoa betikotzen eta emakumearen identitatea ederizatean oinarritzen dela irakasten da, emakumeak besteen iritziaren mende jarritz.

Emakume eta neskatoak **hipersexualizatzen** dira, eta haiek merkatu aske mugagabearen mende jartzen, salgai hutsak balira bezala, patriarkatua eta kapitalismo neoliberalaren erreproduzitzea beste xederik gabe.

Patriarkatuak nahitaezko korporatibismo maskulinoaren alde egiten du, eta emakumeek elkarrekin modu solidarioan joka ez dezaten sustatzen, bultzatzen eta naturalizatzen du. Horren aurrean, sororitatea bisibilizatu, indartu eta biziberritu behar da, emakumeen arteko itun solidarioak indartuz. **Ez gara lehiakide, adiskide baizik.**

Bi alderdi gailen, **autoestimua eta autonomia, sendotu behar dituzte emakumeek**. Nola? Bada, batetik, mugak ezartzen eta beren burua zaintzen ikasteko trebetasunak indartuz, eta, bestetik, «dena maitasunaren alde» eta «dena besteen alde» beren identitatearen parte ez direla ikasiz.

Neska eta mutilek gai izan behar dute sentitzen dutenari izena jartzeko, identifikatzeko eta beldurrik gabe espresatzeko. **Sexualitateak errespetuan, ongizatean eta konfiantzan oinarritu behar du**, eta hori behin eta berriro esan beharra dago, harreman afektibo-sexualetan botere-erlazioek betikoan jarraitzen baitute, ustez lortua dugun berdintasunaren lilurak azpian ezkutatzen duela.

Ulertzea berdintasuna ez dela historiaren joanean gizonak izan diren bezalakoak izatera iristearen pareko, eta nerabeekin batera kritikoki hausnartzea honi buruz: «Berdinak bai, baina zertan eta zertarako?». Helburua hau da: **neskek beren behar eta interesen arabera definitzea mundua**, beren desira orain arte ezarri izan zaizkien ikuspuntu maskulinoetatik abiatuta definitzeari uko eginez..

Erantzukidetasun integralaren beharra defendatzea bikote-harremanen alderdi guztietan, nola etxeko lanetan hala esparru afektibo-sexualean, bikotekideek harremanaz elkar hartuta gozatzeko eta, bizi garen mundu honetan, gure bizi-kalitatea handiagoa izateko. Harreman arriskutsuak bazter uztea zaintza erdigunean jartzen duten harremanen mesedetan: **«mutil gaiztoak» eta arriskua deserotizatzea eta zaintza eta errespetua, «gizon zaintzailea», erotizatzea.**

Emakume modura zertzen gaituzten gorputz askotarikoak aintzat hartzea, edertasun-eredu hegemonikoarekin haustea, eta sistemak emakumeen gorputza eta sexualitatea nola kontrolatzen dituen modu kritikoan hausnartzea, horretan errealitate pertsonalek zer-nolako garrantzia duten aztertuz, eta hori emakumeen trafikoarekin, prostituzioarekin, pornografiarekin, haurdunaldi subrogatuarekin eta **antzeko beste gai batzuekin lotuz.**

3 PAUSOA



**Portaera
indibidualetatik
portaera
kolektiboetara
pasatzea:
berdintasunaren alde,
denok Herritartasun
Global baterantz.**

Behin indarkeria matxistak identifikatzen eta desnaturalizatzen ikasi ondoren, ondo ulertzen dugunean zein diren halakoak eragiten dituzten kausa estrukturalak, norberaren bizitzaz harago doazenak, **hurrengo urratsa eremu pertsonalenean zer edo zer egitea da**, gu diskurtso patriarkalaren zer elementuk mamitzen gaituzten eta, beraz, gu geu arazoaren parte zenbateraino garen identifikatuz, eta soluzioak emate aldera nor bere bizitzan zer desikasi, zer egin eta nola jokatu asmatuz. Kontuan hartuta indarkeria

matxistak gure egunerokoan izugarri presente daudela, nor bere esperientzia eta bizipenetatik abiatzea da aproposena, zeren eta hain zuzen ere hortxe, norberaren bizitzan, aurkituko ditugu indarkeria horiek zuztarretik nola aldatu jakiten lagunduko diguten erantzunak, gure bizimodu eta gaitasunak etengabe egokituz.

Estrategia politiko gisara norberaren bizitzatik abiatze horrek aukera aparta emango digu ezagutza kritiko, konprometitu, proaktibo eta positibo bat lantzeko, eta horrek, era berean, gizartea eraldatzearen aldeko alternatibak imajinatzeko, mobilizatzeko eta sortzeko aukera emango digu, eta bidean ezagutuz joango garen potentzialtasun eta gaitasun berriei esker, norbanako eta kolektibo modura ahaldunduko gara, horrek gure erabakimena sendotuko du.

Norberaren bizitzatik abiatzea ezinbestekoa den arren, hala ere ez daukagu hor gelditzerik, baldin eta egitura sozial, ekonomiko eta politikoak desmuntatu nahi baditugu, kontuan hartuz egiturok direla desberdintasunen eta indarkeriaren sostengu ukaezinak. **Besteekin batuz eta eremu kolektibora jauzi eginez,** jarrerak, portaerak eta praktikak **zuztarretik aldatzeko motiboak**

aurkitu behar ditugu, horrek mundu bidezkoago eta parekideago bat lortzeko bidean jar gaitzan eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiten lagundu diezagun.

Eraldaketa sozial horri ahalduntze kolektiboaren bidez bakarrik ekin ahal izango zaio; alegia, eraldaketa sozialaren alde daudenen indarrak batuz, baina ez inoren kontra, ez eta horretan norbanako modura jokatuz ere, baizik eta bestearekin eta elkarrekin egonez eta ekinez.

Ahalduntze kolektiboa da, inondik ere, ikuskera hierarkiko patriarkalaren alternatibarik sendoena, **besteak eta natura azpian hartzen dituen boterea disolbatu eta feminismoek planteatutako botere-modu berriak martxan jar ditzakeenez gero;** izan ere, botere-modu berri horiek elkartzeko, batzeko eta indarrak berrelikatzeko balio digute. Hala, hemen proposatzera goazena zera da: barru-barruan daukagun boterea kanpora ateratzea, pertsonaren beraren baitan dagoen botere horretaz aprobetxatzea, eta norbera zer den eta zer-nolako ahalak dituen, ahal horiek erabiltzea, baina beste pertsona batzuen sormenerako ahala ere onartuz betiere. Botere-mota horrek ekintzarako ahala emango liguke, bai eta gure harremanei modu kritikoagoan

ekiteko gaitasuna ere, eta inposaketari eta mendekotasunari aurre egiteko baliabideak ere bai. **Besteekin partekatutako boterea botere kolektiboa da, botere pertsonala nabarmen handitzen duena**, eta besteekin lehiatu beharra bazterturik, besteen balioa onartzen eta gauzak elkarrekin egiteko beharra aintzat hartzen duena. Harreman-eredu horizontal berri horretan, non ere, gure bizitzak mugatzen dituen sistema globalari aurre eginez, ikaskuntza- eta ahalduztze-bide ezinago oparoak sor daitezkeen, denak ere pentsamendu kritikoa pizten dutenak, norbanako eta kolektibo gisara antolatzeke modu berriak aurkitu ditzakegu.

Garrantzi handikoa da ulertzea emakumeen kontrako indarkeria ez dela arazo pribatu bat, auzi publiko ikaragarri larria baizik, mundu osoari eragiten diona, eta hain zuzen horrexegatik eremu publikoaren erdigunean jarri behar dena. Horretarako, **herritartasun global bat sortu behar da, kritikoa eta konprometituta, erantzukizun indibidual eta kolektiboa bere gain harturik, deliberatuki, egingo diona aurre indarkeria matxistei**, halakoak identifikatzeko eta deuseztatzeko beharrezkoak diren ekintza publikoak antolatuz. InteRedekook (2019) uste dugu garapenerako hezkuntza tradizionala gainditu beharra dagoela, hezkuntza-


eragile guztiek dutela eginkizun politiko bat, eta hezkuntzan, beste alor askotan bezala, **elkarrekin estu lotu behar direla alderdi pertsonala eta alderdi soziala, tokian tokiko ikuspegia eta mundu zabala aintzat hartzen duena, betiere eskubideak ahaztu gabe**, eta hezkuntzaren lau zutabeekin bat eginik²⁶, gutxienez oinarritzko hiru prozesu jarri behar direla martxan; hau da: 1) globalizazioaren dinamismo konplexuak ulertu; 2) tokian tokiko testuinguruak denok elkarri lotzen gaituen errealitate globalarekin uztartu; eta 3) pertsona eta herritar gisara dugun kontzientzia sendotu, denon artean mundu hobe bat eraikitzeke, eskubide guztiak errespetatu eta mamitu daitezkeen²⁷.

Esparru publikoa berreskuratzeari dagokionez, oso garrantzitsua da inguru hurbilenean antolatzen hastea, **eta ulertzea hezkuntza ez dela eremu formal eta ez-formaletara murrizten, eta eremu zabalagoak behar ditugula, hau da, hezkuntza-komunitateak**, halakoetan komunitate-lana izan dadin nagusi: lan kolektiboa, alegia. Hala, izan ere, ikaskuntza kolektiboak sortu ahal izango ditugu, sinergiak martxan jarri eta indarrak batu, egunerokoan indarkeria matxistei aurrea hartuz eta halakoak deuseztatzeko mobilizatuz.

²⁶ Izaten ikasi, ezagutzen ikasi, egiten ikasi eta elkarrekin bizitzen ikasi: horra hor hezkuntzaren lau zutabeak. Ik. Delors, J. (1996): La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión internacional sobre la educación para el siglo XXI, hemen: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000109590_spa

²⁷ Hala, 1993an, Giza Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren barruan, onartutako Vienako Deklarazioa eta Programa delakoaren 5. puntuak zera zehazten du: "Giza eskubide guztiak unibertuala, banaezinak eta interdependenteak dira, eta bata bestearekin lotuta daude".

Hezkuntza-komunitate horietatik abiatuta mobilizatu gara goraxeago aipatzen genuen herritartasun global kritiko eta ahalduz gisara, eta horrelaxe lortuko dugu gure ekintzek intzidentzia politiko konkretua izatea eta erakundeek indarkeriaren arazoari aurre egiteko funtzio eta baliabide aski ematea, **hezkidetza eskola-sistemako etapa guztietan inplementatzeko batez ere, hori indarkeria matxistei aurrea hartzeko ezinbesteko dela ulerturik.**



GAZTEAK, ALDAKETA SOZIALAREN PROTAGONISTA

ORAIN, BERDINTASUNA! kanpaina **gazteak gogoan hartuta antolatu dugu, haiek ekarriko baitute, inork ekartzekotan, aldaketa hala inguru hurbilenara nola munduglobalera.** Gazteak baino inor hoberik ez desberdintasunez jositako mundu honen aldaketa-egarriari sormenaren indarra txertatzeko, indarkeriarik gabeko mundu bizigarriago bat sortzea helburu harturik. Horretarako, ordea, **gazteen ondoan behar dute hezkuntza-komunitate osoa:** hezitzaileak, familiak, orientatzaileak, erakundeak, elkarteak, sektore forma eta ez-formala...

Hezkuntza-komunitatea gazteen ondoan egote hori funts-funtsezkoa da hezkidetza-praxia martxan jarri eta horrek nagusi den garapen-ereduan eragina izan dezan, hura ezagutzeko eta modu kritikoan aztertzeke eta azterketa hori aberasteko bideak urratuz. Gazteen eta hezkuntza-komunitate osoaren arteko solas moduko horri eraiki nahi dugun mundu horretara iristeko baldintza ezinbestekoa irizten diogu, berdintasunaren praxia lantzen duenez gero. Horiek horrela, **pertsonen garapenean, gure eguneroko praktika indibidual eta kolektiboek zentzua ematen dien praxi politikoan, iparrorratz**

sozial eta subjektiboa izatea dagokie irakasleei, zaintzak ardatz eta aniztasuna lege bihurturik, denok lor dezagun bizitza bete-betea izatea, nor bere eskubide eta erantzukizunen jakitun izanik.

Gazteen eta helduen arteko harreman horretantxe **sortzen dira, hain zuzen, ikaskuntzarik aberasgarrienak, bizimodu berriak bazkatzeko gai direnak,** berdintasunaren eta indarkeria matxisten amaieraren alde borrokatu diren pertsona guztien jakituri az elikaturik betiere. Zubi-lana egitea dagokio hezkuntza-komunitateari, gazteen eta gizartearen arteko lokarri izatea, eta hezkidetza-prozesuaren nolakoa, hau da, prozesuok inplementatzeko modua, zertarakoa bezain inportantea dela ikusaraztea.

Helburu hori erdiesteak zer-nolako buruko minak eman ditzakeen ederki dakigu, eta **mailaz mailako hezkuntza-ekintza ondo koordinatutako bat martxan jartzearen alde egiten dugu apustu** ORAIN, BERDINTASUNA! kanpainan. Gazteak dira gure esku-hartzearen hartzaileak, baina baita ikastetxeak ere, bai eta klaustroa, zuzendaritza-taldea eta familiak ere, eta inguru osoa orohar. Horretarako, besteneurri batzuen artean, **komunitateen hezkidetza dinamizatuko duten gazte-talde eragileak sortzea proposatzen dugu,** gorputzari

energia punpatzen dioten bihotzak balira bezala. Horrek, gainera, etengabe ikasten jarraitu behar dugula gogoraraziko digu, eta sustraiak Herritartasun Globalaren ikuspegian errotuta edukitzeak gertueneko eta urruneneko errealitateetan esku hartzea esan nahi duela ere bai, alderdi pertsonalaren eta alderdi kolektiboaren arteko lotura estuen ikuspegia aintzat hartuz betiere.

Gure proposamen metodologikoaren muina, hezkidetzari buruzko bide-orriaz gainera (identifikatu – desmuntatu – zer edo zer egin), **bizipenak, gogoeta, teoria eta testuinguruak lantzea da, denen parte hartzea ziurtatuz eta afektuak erdigunean jarritz.** Uste dugu norberaren gorputz eta bizipenetatik abiatzen den ikaskuntza esperimentalak sekulako ahala duela errealitatea zuztarretik aldatzeko, egunero egin ohi ditugun eta gaur egungo garapen-ereduan nagusi diren injustiziak bazkatzen dituzten ohiturak batez ere. Kontzientzia eta jakintza eraikitzeke lanabes horiek modu kolektiboan bakarrik landu daitezke, guk uste: besteekin bat eginik baino martxan jartzen ez den sormen-prozesu amaigabe horretan. Prozesu horren giltzarrietako bat da **gatazkak ikaskuntza-iturritzat jotzea, eta botere-harremanen azterketa eta berdinen arteko negoziazioa indarkeriari aurrea**

hartzeko ezinbesteko baliabideak direla ondo ulertzea. Hori guztia helburu harturik, ORAIN, BERDINTASUNA! kanpainak hainbat material prestatuko ditu, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitutakoak, denek erabili ahal izan ditzaten beren esku-hartzeetan, bai hezkuntza-komunitatean bertan, bai hezkuntza-komunitatetik kanpora.



Gazte eta nerabeekin egindako hezkidetzalana fruitu ederrak ematen ari da indarkeria matxistari aurre egitearekin konprometitutako herritar aktiboak sortzeari dagokionez. Hezkidetzak besoak zabalik onartzen ditu aldaketak, auzitan jartzen ditu bai sistema patriarkala eta bai harremanak berdinen artekoak izatea galarazten duten genero-desberdintasunak, martxan jartzen ditu familia barruko rol matxistak iraultzeko mekanismoak, erraztasunak ematen ditu taldean lan egiteko, sormena pizten du eraldaketa sozialaren alde nola borrokatu asmatzeko... Eta horren guztiaren bidez —eguneroko lorpenak, egunero proposatzen zaizkigun imajinario eta diskurtsoak, egunero iruten ditugun harremanak, egunero asmatzen ditugun politika-proposamenak...—, pauso txikiak emanez joan gaitezke gizon eta emakumeen arteko harremanak horizontalak, jatorrak eta parekideak izan bitartearainoko bide horretan.

Bai Espainian eta bai InteRed dagoen gainerako herrialdeetan (Bolivia, Mexikon eta Guatemalan, adibidez), asko dira, hezkuntza-sektorearen eremu formal eta ez-formaletan, indarkeria matxistei aurrea hartzeko abian jarritako proposamen eta estrategiak, sensibilizazioan, prestakuntzan, mobilizazioan eta intzidentzia praktikoan ardaztutakoak.

Askok gazteak dituzte protagonista, behar dugun aldaketa sozial horren eragileak haiek direlakoan; gazteek, ordea, denok behargaituzte ondoan: irakasleak, gurasoak, senitartekoak, eta baita auzo-elkarte eta



erakundeak ere, den-denek, gutxi-asko, proposamenetan parte har dezaten. Hortaz, ezinbestekoa da komunitatea buru-belarri inplikatzeari hezikidetzaren horretan, aldaketa iraunkorrak lortuko baditugu (testu honen amaieran, eranskin modura, hango eta hemengo gazteen zenbait proposamen bildu ditugu, mobilizaziorako eta sentsibilizaziorako ideia-jasa modura).



ORAIN, BERDINTASUNA! Goazen aurrera elkarrekin, indarkeria matxistarik gabeko mundu bat lortu arte!


Dokumentu hau gogoeta-pizgarri eta prestakuntza-iturri izan dadila nahi genuke ORAIN, BERDINTASUNA! kanpainan parte hartu dugun denok, behar dugun indarkeria matxistarik gabeko mundu desiragarri hori lortzen eta gure eskubideez aske gozatzeko lagundu diezagun.




Bidea ez da laburra izango, luze bezain malkartsua baizik, guk baino lehen berdintasunaren alde borrokatu diren emakumeen genealogiak ederki asko erakusten digun bezala. Genealogia horretan pauso bat areago eman nahi genuke guk, umil eta apal, hemen aurkezten

Hala ere, bidea laburra izango ez bada ere (badakigu ez dela sekula izan), horrek ez du esan nahi itxaropena galdu behar dugunik, edota bidean aurrera egin ahala ezustekoak eta sorpresak izango ez direnik (norbanako eta kolektibo gisara, bietara), uste ez genituen fruituak emango dizkigutenak. Egia da, dena dela, bidea urratze hori ahalik oparoena izateko, motxila bete lanabes abiatu behar dugula, egunerokoan egin beharrekoei irmoki ekiteko, indarkeria matxistei hezkuntza-komunitate eta gizarte modura aurrea hartzeko.

Orrialde batzuk gorago esaten genuen bezala, bidean aurrera goazela eskuratuko ditugu ikaskuntza eta lanabes horiek, ondoan ditugun bidaideekin batera. Baina hain zuzen ere horrexegatik, bakarrik ez gaudelako eta gure aurretik beste hainbat lekutan egindakoa egiten jarraitzen dugulako, **oraintxe bertan ere baditugu hezkidetza-lan eraldatzaile horri nola ekin jakiteko nahikoa arrasto.**





BIBLIOGRAFIA

AsiaNews.it, En Kerala, cadena humana de 3 millones y medio de mujeres, para rezar en el templo hindú, [online], 2019ko urtarrilaren 2a. Hemen eskuragarri: <http://www.asianews.it/noticias-es/En-Kerala,-cadena-humana-de-3-millones-y-medio-de-mujeres,-para-rezar-en-un-templo-hind%C3%BA--45860.html>

Cantor, D., Fisher, B., Chibnall, S., Townsend, R., Lee, H., Bruce, C. eta Thomas, G. (2015), Report on the AAU Campus Climate Survey on Sexual Assault and Sexual Misconduct, 13. eta 35. or.

Díaz-Aguado Jalón, María José (2014), La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza.

Entrepueblos (2017), Economía Feminista. Desafíos, propuestas, alianzas.

Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014), Violence against women: an EU-wide survey, 104. or.

Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014), Violence against women: an EU-wide survey, 3. eranskina, 184.-188. or.

Gregorio Gil, Carmen (2003), Revisiones feministas en el análisis de las migraciones, en Congreso Iberoamericano de Estudios de Género, Saltako Unibertsitate Nazionala, Argentina, 2003ko uztaila. Hemen eskuragarri: https://www.ugr.es/~pfisiem/html/ponencias/REVISIONES_FEMINISTAS_EN_AN_LISIS_MIGRACIONES._GREGORIO._SALTA__ARGENTINA_.doc

Gómez Wagner, Celeste (2015), ¿Qué es el movimiento cinturón verde? [online], 2015eko urriaren 14a. Hemen eskuragarri: https://www.bioguia.com/entretenimiento/que-es-el-movimiento-cinturon-verde_29277170.html

Infocielo, Cómo y por qué comenzó el Ni Una Menos: el movimiento que visibilizó la lucha de las mujeres, [online], 2018ko ekainaren 3a. Hemen eskuragarri: https://infocielo.com/nota/92198/como_y_por_que_comenzo_el_ni_una_menos_el_movimiento_que_visibilizo_la_lucha_de_las_mujeres/

InteRed (2014), Política de Género de InteRed 2014-2017, Madril.

InteRed (2019). Posicionamiento de Educación de InteRed. Por una educación transformadora, Madril.

Koordinakundea (2018), Mujeres del mundo en huelga [online], 2018ko martxoaren 2a. Hemen eskuragarri: <https://coordinadoraongd.org/2018/03/mujeres-del-mundo-huelga/>

López Salorio (2018). Hemen eskuragarri: <http://www.fairwear.org/vaw-prevention/>

NBE (2017), Las mujeres y la primavera árabe [en línea], 2017ko ekaina. Hemen eskuragarri: <https://unchronicle.un.org/es/article/las-mujeres-y-la-primavera-rabe>

Osasunaren Mundu Erakundea, Ugalketa Osasun eta Ikerketa Saila, Londresko Higiene eta Medikuntza Tropikalari buruzko Eskola, Ikerketarako Hegoafrikako Kontseilua (2013).

Tribuna feminista (2017), ONU Mujeres pide que se reconozca el trabajo no remunerado de mujeres al cargo de cuidados y tareas, [online], 2017ko otsailaren 20a. Hemen eskuragarri: <https://tribunafeminista.elplural.com/2017/02/onu-mujeres-pide-que-se-reconozca-el-trabajo-no-remunerado-de-mujeres-al-cargo-de-cuidados-y-tareas/>

UIT (2014), La UIT y ONU Mujeres celebran el poder de la tecnología para transformar la vida de las mujeres en todo el mundo, [online], 2014ko urriaren 28a. Hemen eskuragarri: www.itu.int/net/pressoffice/press_releases/2014/56-es.aspx#.VL05MyUeSo (iturria: feminicidio.net).

UNESCO (2016), Informe de seguimiento de la educación en el mundo. Hemen eskuragarri: <https://gem-report-2016.unesco.org/es/chapter/la-paridad-de-genero/>

UNESCO, (2018), Op.cit., in Entreculturas (2018), Niñas libres de violencia, Educación como garantía de igualdad, Madril.

UNFPA (2017), Mundos aparte. La salud y los derechos reproductivos en tiempos de desigualdad, in Entreculturas (2108), Niñas libres de violencia, Educación como garantía de igualdad.

Unicef (2016), Female Genital Mutilation/Cutting: A global concern, UNICEF, New York.

Unicef (2017), State of the World`s Children.

Interedek hezkuntza-prozesuak bultzatzen ditu, gizarte-justiziaren, genero-ekitatearen eta pertsonen eta naturaren zaintzaren aldeko aldaketa pertsonal eta kolektiborako.

www.intered.org/tocaigualdad/

